



I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGO	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	LATINA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	1. Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia. 2. Kompetentzia sozial eta zibikoa. 3. Gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia 4. Arterako kompetentzia. 5. Konpetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Asun Villanueva	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimererako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Irakurketaren eta analisi morfosintaktikoaren bidez, latindar testuak itzultzea, ulertzea eta aztertzea, aintzinako Erromako errealitate sozio-kulturala ezagutzeko eta interpretatzeko. 2. Eguneroko hizkuntzan eta terminologia zientifiko.teknikoan ageri diren latindar jatorriko hitzak identifikatzea eta baiostea, eta horretan, etimo,aurrizki eta atzizki latindarrak identifikatzea, norberaren lexikoa aberasteko eta ahozko nahiz idatzitako adierazpena hobetzeko. 3. Latinaren oinarri eta egitura linguistikoak	1 Ea gai den egile latindar klasikoen genero guztietako testu labur eta gero eta zailagoak hiztegiaren laguntzarekin aztertzeke eta itzultzeke. 2. Ea gai den itzulitako testuak interpretatzeko eta iruzkintzeke. 3. Ea gai den elementu lexiko latindarrak identifikatzen, eta ea ezagutzen dituen latinezko hitzen osaeran tartean diren eratorpen- eta osaera-prozedurak. 4. Ea gai den hizkuntza jasoan eta hizkuntza<a teknikoan erabili ohi diren latinismo eta esamolde



ezagutzea eta zuzen erabiltzea, eta horretan, oinarri eta egitura horiek norberaren hizkuntzan nagusi direnekin alderatzea, ezaguera horiek guztiak latinezko testuak aztertzean, itzultzean eta interpretatzean erabiltzeko, norberaren hizkuntza sakonago ezagutzeko eta beste hizkuntza batzu errazago ikasteko.

4. Literatura-genero desberdinetako testu latindarrak modu kritikoan aztertzea, eta horretan, informazioa lortzeko prozesuan lehen mailako iturriak erabiltzeak zer-nolako garrantzia duen ohartzea, antzinako erromatar mundua sakonago ezagutzeko eta ulertzeko, eta mundu horrek utzitako kultura-ondarea aintzat hartzeko.

5. Erromako kulturak egindako ekarpen nagusiak identifikatzea eta modu kritikoan aztertzea, eta horretan, ekarpen horiek Mendebaldeko zibilizazioa hezuramaitu dutela onartzea, gure historia eta kultura hobeto ulertzeko, batetik, eta ondare hori zaintzeko nahiz babesteko, bestetik.

6. Informazioa bilatzean, aukeratzean eta prozesatzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, kritiko eta etikoan erabiltzea, aintzinako Erromako zenbait alderdiren berri sakonago jakiteko.

7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, norberarenaz bestelako hizkuntzak ikastean eta beste ikasgai batzuk lantzean garatutako komunikazio.ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta horretan, autorregulazioa sustatzeko eta ikaskuntzaren eremuan autonomia lantzeko norberak dituen gaitasunetan konfiantza izatea

latindarrak identifikatzeko eta haien esanahia azaltzeko.

5. Ea gai den esaldi testu latindarretan oinarritzko elementu morfologikoak eta hitz arruntak identifikatzeko eta aztertzeko.

6. Ea gai den esaldi eta testuetan latinaren oinarritzko elementu eta egitura morfologikoak identifikatzeko eta aztertzeko, eta horretan, ea gai den latinaren eta dakizkien beste hizkuntza batzuen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzeko.

7. Ea badakien zein diren literatura-genero, egile eta genero bakoitzeko literatura lan adierazgarrienak.

8. Ea gai den zenbait generotako testu itzuliak irakurtzeko, aztertzeko eta iruzkintzeko. Eta ea badakien testu horien ezaugarri literarioak bereizten.

9. Ea ohartzen den literatura latindarrak Mendebaldeko literaturari egindako ekarpenez.

10. Ea badakien latindar jatorriko etimoei bilakaera fonetikoko arauak aplikatzeko, eta ea gai den ondare hitzen eta kultismoen arteko lotura semantikoak zein diren esateko.

11. Ea gai den, informazioa bilatzean, aukeratzean, komunikatzean eta zabaltzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, eraginkor eta kritikoan erabiltzeko.

12. Ea gai den hizkuntzak ikastean tartean diren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egiteko, eta horretan, ea baduen konfiantzarik bere gaitasunetan.



EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Lehen ebaluazioa

- Aurreko urtean emandakoaren berrikustea: deklinabideak, aditzak, izenordainak, zenbakiak, konparatibo eta superlatiboak.
- Erlatibozko perpausak.
- Infinitiboa.
- Aditz irregularrak: possum, volo, nolo, malo
- Zesar eta Salustioren esaldi eta testuen itzulpena ikusitako edukin morfologiko eta sintaktikoak lantzeko.
- Etimologia ariketak testuetan agertzen diren hitzez baliatuz.
- Literatura: historiografia, oratoria, filosofia, epistolografia.

Bigarren ebaluazioa

- Partizipioa.
- UT, CUM, NE eta QUOD baloreak.
- Aditz irregularrak: fero, fio, eo.
- Aditz deponenteak.
- Zesar eta Salustioren esaldi eta testuen itzulpena ikusitako edukin morfologiko eta sintaktikoak lantzeko.
- Etimologia ariketak testuetan agertzen diren hitzez baliatuz.
- Literatura: poesia epikoa, antzerkia.
- Irakurgai: "Epidicus"

Hirugarren ebaluazioa

- Beste bi ebaluazioetan emandakoaren berrikusketa.
- Zesar eta Salustioren esaldi eta testuen itzulpena ikusitako edukin morfologiko eta sintaktikoak lantzeko.
- Etimologia ariketak testuetan agertzen diren hitzez baliatuz.
- Literatura: poesia lirikoa.



METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].


METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Metodologia inklusiboa, anitza eta zabala.
- Gaiak malgutasun eta aniztasunekin aurkeztuko dira.
- Ikasgaiaren arlo desberdinak : latina, testu latindarren interpretazioa, lexiko latindarraren bilakaera eta Erromak utzitako ondarea erlazionatuko dira.
- Testuen itzulpena baliabide ezin hobea izango da aurreko arlo guztiak ondo jabetzeko
- Esaldi eta testuen itzulpenak erabiliko dira azalpenekin batera ikasleak gero eta autonomia gehiago lor dezan.
- Etxerako lanak erabiliko dira edukiak indartzeko eta akats arruntak zuzentzeko.
- Ikasleen partizipazioa guztiz beharrezkoa izango da.
- Talde lanak eta sarean dauden errekurtsioak erabiliko dira teoriako eduki guztiak lantzeko.
- Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Planean adierazten den bezala, irakurmena lantzeko atazak egingo dira. Ataza horiek egiteko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa hirugarren ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko da.



<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portfolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Etxerako lanak. • Koadernoak. • Errefortzurako ariketak. • Gelako lana eta jarrera • Gelako behaketa. • Azterketa 	<p>Azterketa</p> <p>%50: itzulpena</p> <p>%10: analisi sintaktikoa</p> <p>%10: analisi morfologikoa</p> <p>%10: etimologia</p> <p>%10: literatura</p> <p>%10: irakurra / esamoldeak</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Etengabeko ebaluazioa</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

IES Uribekosta BHI Bigarren Hezkuntza Institutua

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Instituto de Educación Secundaria IES Uribekosta BHI